

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gaur argitaratuko dira DBHko oposizioko tribunalak, errekurtsua ebatzi baita dagoeneko

Oposizio deialdiaren eten automatikoa eragin zuen errekurtsua ebatzi eta horren berri eman ondotik, prozedurak aurrera jarraitzen du aurreikusi bezala

Osteguna, 2018.eko maiatzak 24

Hezkuntza departamentuak dagoeneko notifikatu du joan zen astelehenean bigarren hezkuntzako oposizioaren prozedura etenarazi zuen errekurtsuaren ebazpena. Jakinarazpenak, eten automatikoa altzarazten du, beraz, prozedurak normaltasun osoz jarrai dezake, Departamentuak astelehenean bertan iragarri bezala. Hala, oposizio prozeduran aurreikusitako epeak ez dira aldatzen.

Gaur bertan argitaratuko da Tribunalen behin betiko osaketa, eta datorren astean osatuko dira. Era berean, berrabiarazi egin da onartutako eta kaleratutako hautagaien behin behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea; ekainaren 6ra arte luzatuko da.

Behin epe hori igarota, ekainaren 11tik 16ra bitarteko astean, onartutako eta kanporatutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko da eta programazio didaktikoa aurkezteko deialdia egingo da; beti ere, ekainaren 23a baino lehen, orduan hasiko baitira azterketak.

Aldi berean, hezkuntzari dagozkion 1.141 plazen egonkortze OPEa onartzeko lanean ari da gobernua. Asmoa da ekainaren 23an deitutako espezialitateen plaza kopurua gehitzeko garaiz iristea.